

Demokraziak ate guztiak ireki behar ditu

2006ko martxoan ETAk iragarritako su-etenaren ondoren itxaropenezko ozeano batean murgildu zen euskal gizartea. Zalantzak zalantza eta beldurrak beldur, bakea eta behin betiko normalizazio politikoa gertu ikusi genituen denok. Gertuegi agian eta beharbada horrexegatik kolpea gogorragoa izan zen. ETAk Barajasen euskaldun guztion ametsak zapuztu zituen beste behin ere eta geroztik aukera galduaren sindromepean bizi izan gara euskaldunok, duela urte eta erdi hasitako prozesuaren porrotaren zama astunegia balitz bezala.

Denbora, ordea, ez da alferrik igaro eta orain ez dago atzera egiterik. Espainiar Gobernuaren eta ETAREN arteko negoziazioen porrota ikusirik, Eusko Alkartasunak euskal instituzioek –Legebiltzarrak eta Jaurlaritzak– ekimena hartu beharko luketela aldarrikatu zuen uztailean eta horixe da, hain zuzen ere, Ibarretxe lehendakariak, Jaurlaritza osatzen dugun hiru alderdion izenean, egin duena. EAren iritziz premiazkoa da gatazka politikoaren sustraierara jo eta behin betiko konponbidea lortzea; hori da hasi berri den urte politiko honen gure helburu nagusia. Estatuarekiko itun politikoa berritu nahi dugu; euskal gizartearen gehiengoaren babesarekin demokratikoki eskuratuz gero, Euskal Herrian egitasmo politiko guztiak, independentzia barne, gauzatu ahal izango direla bermatuko duen akordio bat nahi dugu.

Fede onez eginiko eskaintza da gurea. Demokratak garelako, aurre-baldintzarik gabe eztabaidatu eta demokrazian sakontzeko prest gaude. Madrilen ere aukera bat emango diote demokraziari? Autodeterminazio eskubidea aldarrikatzen dugunok gehiengo osoa izan dugu beti Eusko Legebiltzarrean eta hori ez da kasualitatea. Euskal herritar gehienok gure etorkizuna libre eta demokratikoki erabaki nahi dugu, inoren esku-hartzerik gabe. Aldarrikapen honi erantzun bakarra eman diezaiokete PPK eta PSOEko benetako demokrazian sinesten baldin badute, euskaldunon hitza eta erabakia errespetatuko dituztela, alegia.

Egia esan, euskaldunok ez dugu ezer berririk asmatu. Nazioarteari so eginez gero, erraza da ikustea nola beste zenbait herritan honelako irtenbideak aurkitu dituzten. Quebec, Irlanda, Eskozia, Montenegro, Irlandan... toki horietan guztietan alde guztiek lehen aipatutako oinarritzko printzipio demokratiko hori onartu eta herritarren borondatea errespetatzeko konpromisoa hartu dute. Erresuma Batuan, esaterako, guztiek onartzen dute eskoziarrak nahi dutena izango direla; hemen, aldiz, PP eta PSOEko agintariek, epaileek eta espainiar komunikabideek mehatxu egiteari ekin diote.

Konstituzioa muga dela, Estatuaren batasuna ukiezina dela, euskal autonomia bertan behera utziko dutela... Euskaldunon borondate askeari mugak jartzen dizkiote, demokrazia batean, benetakoa baldin bada behintzat, ate eta bide guztiek irekita egon behar dutela jabetu barik, euskal gizarteak berak nahi duen bidea aukeratzeko eskubidea duelako.

Ateak ixten dizkigute eta 2005eko otsailaren lehenean eginiko akatsa errepikatuko dute, antza. Egun hartan Gasteizko Legebiltzarrak gehiengo osoz onarturiko Estatutu Politiko Berriari –euskal gizarteari, beraz– ezezko borobila eman zion Kongresuak eta orain, Zapaterok berak iragarri duenaren arabera, gauza bera egingo du berriz ere espainiar Gobernuak. Madrilera joan aurretik euskal alderdien arteko akordioa lortu behar dugula esaten digute. Eta zer egin genuen, bada, duela bi urte? Sozialistek gustuko ez badute, gehiengo osoaren akordioak ez du balio, ala?

Gatazka politikoa irekita geratzen zela ohartarazi genien duela bi urte eta orain arazoa behin betiko konpontzeko beste aukera bat izango dugu. Inork gutxik aipatu badu ere, lehendakariak akordiorako proposamen bat baino ez du egin hirukoaren izenean eta Madrilgo Gobernuak borondate politikoa baldin badu, adostasuna lortzeko nahikoa denbora dugulakoan nago. Hori bai, PSOEk, 2005ean bezala, ate guztiak ixten baldin baditu, demokrazian bide bakarra utziko digu: herri kontsulta. Euskal herritarrei hitza emango diegu eta beraiek izango dira hartu beharreko bidea zehaztuko dutenak. Bere etorkizunerako funtsezkoak izango diren erabakiak jokoan daudenean, derrigorrezkoa da gizarteari hitza ematea. Ez dago ezer demokratikoagoa. Nork esango dio bere auzokideari debekaturik daukala iritzia ematea, jokoan dagoena bere etorkizuna denean? Zeharo demokratikoa izateaz gain, Jaurlearitzak abiarazi duen ekimenak ez die zirrikiturik uzten indarkeria sostengatzen dutenei, bide politikoak eta demokratikoak soilik erabiliz gatazkaren muina konponbidearen erdi-erdian jar daitekeela frogatzen baitu. Kontsulta baten bitartez herriari berari martxan jartzeko aukera ematen zaionean, ezinezkoa da indarkeria justifikatzea. Inork ez luke ulertuko Euskal Herrian, Ezker Abertzalean ere ez. Horregatik, orain esatea ausarta izan daitekeen arren, hasi dugun bideak gatazka politikoaren konponbidea ez ezik, indarkeriaren behin betiko desagertzea ere ekarriko duelako uste osoa daukat.

Unai Ziarreta

Eusko Alkartasuneko idazkari nagusia

2007ko Urrian